

54.
zk.

1997KO
EKAINA

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

gasteluz

gasteizko euskaldunen aldizkaria

noruntz goaz?

HAIZE BERRIAK ENERGIAREN ALORREAN

ekainaren 15ean
ARABA
euskalaz
gorabidean

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Geu, idazte

ELKARTASUNA

zuzengabekeriaren lekuko

Elkartasuna, gizalagunen artean eman daitekeen harremanik goresgarrienetarikoa bada ere, gehienetan gizartearen zerbait gaizki dabilen adierazle ere bada.

Egunotan, Euskal Autonomi Elkarteak ehun bat erakunde hogeita hamar mila sinadura biltzen saiatzen ari dira, Eusko Legebiltzarra langabezia eta pobrezia aurrerako Giza Eskubideen Aldeko Gutun bat aldarrika dezan.

Gauzak dauden bezala horrelako ekimen bat bultzatzea, eta are gehiago ekimena kaleratzeko horrenbeste erakunde ados jartzea, balio handikoa da. Baina, une berean, daramagun "modernizazio-europeizazio-ipar-amerikanizazio" prozesuak dakarren pobretze eta marjinazioa hazten ari direla agerian uzten du.

Gainera, badirudi hemendik aurrera egoera latzagoa izan daitekeela, orain arte "ongi-izatearen" gizarte batean bizi omen baikinen (Eskandinabian barre besterik ezin dute egin halakoak entzundakoan). Baina, dagoeneko, "mauka" hori amaitu zaigu: askatasunaren izenean, bakoitzak ahalik eta gehien bereganatzeko aukera dauka; ezin duenak, oihanean bezala, desagertzera kondenatuta dago, espeziea eboluzionatuz joango dalakoan.

Elkartasunaren beste ezaugarri bat da, normalean gizarte maila erdi-baxuenetan pizten dela eta eskakizuna agintariengana heldu orduko, irtenbide bihurtu beharrean airean desagiten dela hitz onen artean.

Imajina al dezakezue 32 orduko lan-astea, lan-ordu estren eta plurienpleguaren desagerpena, lanpostu finkoak edo lanik gabe gelditu direnentzako gutxieneko soldataren pareko ordaina? Puntu gehienak erraz lor litezke berehala, baina langabezia eta pobrezia egoeran aurkitzen direnek ez dute eragin politiko edo ekonomikorik. Oihanaren-gizartearen atarian aurkitzen gara.

Edu Lopez de Luzuriaga

Jaun/andre agurgarria

Gasteizen, 1997ko ekainaren 15ean

Jaun/Andre agurgarria:

50 urteko emankumea naiz, kazetaritza duela 27 urte lizentziatua baina, hala ere, lan egiteko ikaragarritzko gogoia dut; edo, hobeki esanda, lan ordutegi bat eta nire gurasoen magaletik aldentzeko aukera emango didan soldata bat.

Lan esperientzia handirik ez dudan arren, urte hauetan praktika nahikoak egin ditudala uste dut, hainbat erakundetan eginkizun ezberdinak betetzen bekaduna izan naiz, jakintza gai anitzetako ikastaroak egiteko astia izan dut (kurrikuluma nola egin eta aurkeztu behar den, interneta...) Itzulpengintza Mastera ere egin nuen bere garaian. Hizkuntzak ere ez ditut ahaztu. Izan ere, gaur egun beste herriei komunikatu ahal izateko oso garrantzitsuak baitira: Ingeleseraz hitz egiten dut eta alemaniera ikasten ari naiz.

Nire prestakuntza, uste dut, ez dela batere kaxkarra, eta edozein lan ederki betetzeko gai naizelakoan, zuregana jotzen dut. Kurrikuluma ere bertan daukazu, ezer egiaztatu nahi izanez gero dudarik ez izan eta jo ezazu nigan, gustora oso emango dizkizut-eta zehaztasun osoak.

Gogoratu nahi dizut, lan kontratua eginez gero, segurantzia sozialetik laguntzak izango dituzula andrea naizelako, 50 urte baino gehiago ditudalako eta nire lehen lan kontratua izango litzatekelako. Zalantzarik ez izan, zeren ezperientzia jasoa baitut arlo horretan eta, berriz ere, lanean hasteko irrikitan nago.

Adeitasunez, agurtzen zaitu

P.D: MESEDEZ ERANTZUN!!!

Horrelako gutunak idaztea izaten da milaka eta milaka gazte egunero, astero,... izaten duten eginkizunetako bat. Bitartean praktikak egiten dihardugu, baita ikasten ere (ez gaitzen merkatutik at geratu) eta tarteren bat



AMA EDORTA SANZ

libre izanez gero, lanen bat topatzen dugu sosa batzuk irabazteko asmoz (asteburuko kalimotxitoak ere, gure gurasoen kontura izan ez daitezkeen tristea izan arren- hortara mugatzen da askotan gure independentziarako ahalmena).

Noiz izango da gure txanda? Jende larregi kexatu eta kezkatu egiten da, gazteok batez ere, lan kontuan bizi behar dituzten gehiegikeriez, bizi dugun egoeraz: bolada txarra da; hoberantz egingo du ekonomiak; lasai, ez gehiegi arduratu... horrelako erantzunak, nahi beste, entzuten ohituta gaude..

Bestetik, toki honetan lan egitea oso baliotsua zaizu zure kurrikuluma betetzeko, baina eta... nire sabela? Oraindik ez dut ikusi Kurrikulumak jaten dituen inor (Agian hasi beharko, Argiñano bezalako batek, hasi beharko luke jaki barato-barato horietako bat prestatzen)

Ez dut aukera hau galdu nahi, ni ere langabezia nagoela adierazteko. Hemendik gutxira beste praktika "marabilloso" horietako batzuk hasi behar ditut (musu truk noski, oraindik ikasle soil bat naizelako eta antza, arituko naizen esparru horretan asko daukat ikasteko), baina tarteren bat edo badut eta inork lanen bat badu niretzako, badaki, ni prest nago.

Gero, periodikua hartu eta udal zinegotziak, etxebizitza sozialen promozio berria dela eta, 2 milioi pezeta baino gutxiago irabazten duten gazte asko dagoelako harritu egiten direla!!!!

Non bizi dira gure ordezkari horiek?

Igone Olarte, Kazetaria

1997ko ekaina

2

geu idazle, edu lopez de l.
kolaborazioa, igone darte

3

bertsoak, irati anda

4

kalea mintzo: komunikabide
zurrunmurrak eta berriketan

6

GASTEIZ:

- berriak, berriak, berriak
- OEEren jardunaldiak

11

Araba, 7. alaba:

- Haize berriak energia
alorrean

15

KULTURA:

- Abesbatza SOS, une
larriak geure kantarientzat

19

Araba Euskaraz,
gorabidean

22

MUSIKA:

Salbate si puedes
interes bila



irati anda

DOINUA:
ZORTZIKO NAQUSIA

Ikastolan erolaraz,

Ikastoletan arazoa da
benetan oso larria
gure euskara bustertzen dute
sartuz erdara garbia
ta bitartean Euskal Herrian
galduz doa argia izpia
gure herrian euskara dugu
askatasunaren iturria

Euskal Herriak pipa polita
zun Olentzerok emana
hortik zetorren gure kultura
hizkuntza eta izana
behelaino hori poliki gorantz
hodei bihurtuz da joana
tabakoa bukatu bait zaio
gure euskarak emana



1996: asier pz. de karkamo

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAQA,
MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO, ASIER PZ. DE KARKAMO
KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

WIGO SARASOLA, AITIZBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU, ASIER
PZ. DE KARKAMO

KOLABORATZAILEAK:

TXIFI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, WAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, ORATI)

25

KIROLAK: Aurrera, futbol
seaska

28

HAURRAK:

Ganiveteko umeak, hortero
perfektuaren bila



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

GEU

5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

berren
akotatu

Kalea mintzo

Komunikabideak

INFORMAZIOA EDOTA DESINFORMAZIOAREN BILA

1.º INFORMATUTA EGOTEKO ZEIN DA ERABILTZEN DUZUN BIDEA?
2.º BERTOKO ALA KANPOKO KOMUNIKABIDEAK AUKERATZEN DITUZU?



Anitz dira informatuta -edota desinformatuta- egoteko erabiltzen ditugun iturriak.

Komunikabideei dagokienez, merkatuak eskaintzen duen aukera zabala da eta badago non zer aukeratu: irratia, telebista, egunkariak, aldizkariak...

Komunikabide hauetako bakoitzean, informazioaren trataera oso modu desberdinean egiten da. Hau dela eta, komunikabidea hautatzeko norberaren erizpideak ez dira beti berdinak izaten: ideologia, kalitatea eta objetibitatea, kirol-informazioa, horoskopoa, eskelak, bertoko informazioa...



javier ser
JUBILATUA



ignacio armentia
TEKNIKOA

1.º Batez ere egunkaria. Telebistaz ere baliatzen naizen arren, informatuta egoteko egunkaria da biderik onena.

2.º Egunkaria beti hemengoa, ohituta nagoelako eta ona delako. Telebistan, ordea, denetarik aukeratzen dut.

1.º Nire ustez, egunkaria eta telebista. Lehenengoa berriak osatuagoak ematen dituelako eta bigarrena oso erosoa delako.

2.º Hemengo komunikabideak nahiago ditut besteak baino, bertako berri gehiago ematen dituztelako.



fernando izar
IKASLEA



m. isabel acosta
ERIZAINA



julia m. acosta
ETXEOANDREA



rosi ortiz de mendibil
KAZETARIA

1.º Nire kasuan irratia da gehien erabiltzen dudana. Telebistakoa ikuskizun hutsa dela iruditzen zait eta irratia profesionalagoa.

2.º Normalean aukeratzen ditudan medioak hemengoak izaten dira eta erosterakoan kalitatea eta prezioa begiratzen dut, baina beti berdina erosten dut.

1.º Egunkaria, jakina. Nahiago duzun unean irakur dezakezulako eta interesatzen zaizuna lasaiago errepasatzeko aukera duzulako.

2.º Egunkaria erosten dudana bakoitzean hemengoa izaten da baina aukeraketa ez dut ideologiagatik edo egiten, baizik eta ohitura hutsagatik.

1.º Nik uste komunikabideen artean egunkaria dela aproposena ahalik eta hoberen informatuta egoteko.

2.º Hiriko gauza gehien kontaktzen duena aukeratzen dut. Ez dakit onena den ala ez, baina horrela egiten dut.

1.º Komunikabide bat aukeratzekotan egunkaria hartuko nuke, nire ustez informazio zehatzagoa eskaintzen duelako.

2.º Etxean beti egunkari berbera irakurri dugu eta horrela jarraitzen dut ohituragatik.

Kazetaria: juan jose kastresana 'gutxi' **Argazkilaria:** joseba untzalu

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

1997ko ekaina



Abel Enbeitia

Handik eta hemendik

Ez dakit zergatik izan daitekeen, baina Gasteizko Udalean ez da, gehienetan behintzat, herri xehearen arazoen erreallitatea askorik errespetatzen. Edota ez denena edo gehiengoarena. Udalak hiri guztiko biztanleen zutabe izan beharko lukeenean.

Maiatzaren lehen egunetan, hiriko Plaza Berria "karpa" handi batean murgilduta jarri ziguten. Udalaren ekimena zen eta ondo deritzat, hainbat eta hainbat artisauren erakusketa bihurtzea esparru berezi hori. Baina herritarren eskaeraz izan ote da? Nik galdetutako gasteiztar gehienak ezjakinean zeuden behintzat...

Osteguneko azoka koloretsua, ordea, nahiz eta herritar gehienak aldarrikatzen duten, ez dute berreskuratu nahi. Enparantzak zikindu egiten omen da... Arrazoi eskasa nire ustez. Ezin uka genezake zerbait egingo litzatekeela, hala ere ez dut uste hainbesterako litzatekeenik eta herritarren gustua egiteak ez ote du esfortzu txiki hori merezi?

Herritar gazte askok, gero

eta gehiagok zorionez, intsumisioa aldarrikatzen dute, ez dute armarik hartu nahi. Eta asmo hori, beraiek ere ordezkatu behar litzatekeen udalbatzak defendatzea nahi lukete eta halaxe egin eskakizuna ere. Udalbatzaren gehiengoak, ordea, ezetkoarekin erantzun, ejertzitoarekin kolaboratzen jarraituko dutela agudiatuz. Hori al da beti ahoan darabilten bakea defendatzea? Ejertzitoak eta armak ote dira bakearen zutabeak?

Eta herritarrek nola ez kezkatu "tranvia" ren etengabeko propaganda egiten ari direnean, kale ertzetan gazteria kamerak jartzeko egitasmoa aztertzen edo Matxete Enparantzako eskailera mekanikoekin ametsetan diharduten bitartean, "Ibarrola" autobus geltokia, beraien diruz hasia, ez aurrera ez atzera ikusten baldin badute?

Hanka sartu baino lehen zergaitik ez herri xehearen nondik norakoa galdetu? Hurrengo legealdian behar bada? Ea hala den.



Nikiel Garmendia

Gamarrako zikoinen esanda

Gamarrako zikoinen esanda dakit, bai, zeren badira lau bat urte, Euskal Herrian arnasten zen giroa jasan ezina egiten zitzaidalarik, Gasteiztik alde egin eta Burgosko Mirafloresko Kartujan sartu nintzela. Harrezkero, urtero-urtero egin izan didate bisita txintxo asko Gamarrako zikoinen ene erretretalekura.

Duela lau urte, zikoinen lehenengo aldiz bisitatu nindutenean, esan zidaten ezagutzen nindutela -haiek, ez dakit jakingo duzuen, ondotox ezagutzen gaituzte gasteiztar denak- eta galdegin ea zergatik hartu nuen halako deliberamendu xelebrea. Aipatu nien nire nekea, aipatu euskaldunon arteko giro petralla gehiago jasan ezina, aipatu nien sosegu beharra. Ez zidaten erantzun, adi-adi eta triste gelditu zitzaizkidan begira. Halere, Afrikarantz abiatu aurretik haiekin joatera gonbidatu ninduten, baina nik ezetz, aski izango nuela urtean behin bisitatzen baninduten eta Gasteizko berri ematen.

Halatan, handik urtebetera itzuli ziren. Ni konbentzitzen

saiatu ziren, Gasteiza itzuli beharra neukala, adoretzu zebilela jendearen euskalgintzan, giro majoa izan zela azken bertso-afarian, eta horrela... Baina nik ezetz, ilusiogabeturik jarraitzen nuela, ene baitan bizi diren izakiak, izpirituak, edo dena delakoak gauza bera errepikatzen zidatela: oraindik ez. Hurrengo bi urtetan ere berdin, "oraindik ez" erantzun nien zikoinei.

Kartusian eman dudana denbora luzean bi zeregin nagusi izan ditut, bakearen alde otoitz egin eta bertako kartusiarrekin batera kantuan trebatu. Oso zaletu naiz kantura.

Aurten, aldiz, beste sasoi batekin azaldu naiz zikoinak errezibitzera, barruko izpirituak "aski da" edo esan izan balidate bezala. Gasteizerantz abiatzera deliberatzeko falta zitzaidan bultzadatxo zikoinen eman didate, halere: esan ez dit, bada, zikoinetako batek eratu berri dutela GEUkoek GEU Euskal Abesbatza! Adio, zikoinak, Gamarran ikusiko zaituztet heldu den urtean!



HegoAmerikako
jantziak ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



GYREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

ZINE ARETO BERRIA

Guridi zinemek areto berria izango dute laster

Datorren uztailetik aurrera gure hirian zine areto berri bat izango dugu, horrela espero du behintzat Javier VESAko gerenteak: "Uztailaren bukaeran edo, festak pasa eta gero, abuztuan irekiko dugu aretoa". 100 pertsonentzako lekua izango du areto berri horrek eta bere ekipamendua punta-puntakoa izango da, merkatuan dagoen berriena.

Eta non egingo duten? Guridi zinemark dauden eraikinean. Ikustoki berri honekin, beraz, zazpi areto izango ditu zentroaldeko zinema honek. Ikusle goaren kopuruak gora egin duela eta, Guridi zinemen arduradunak areto berri hau irekitzera animatu dira.

DAVID ALVEZ



EDORTA SANZ

Abialdian 20 urte beranduago

1977AN EUSKAL HERRIA ZEHARKATU ZUEN ASKATASUNAREN MARTXA ERREPIKATUKO DA AURTEN

Euskal Herria, jaiki hadi eta eman hadi bidean...". Huraxe izan zen duela 20 urte Euskal Herria zeharkatu zuen martxaren leloa. Une zailak ziren haiek, baina antolatzaileek garaiko mobilizaziorik jendetsuena izatea lortu zuten. Frankoren heriotzaren ondoren, euskaldunon askatasunaren egarriak euskal errepideak bereak egin zituen.

Egun, 20 urte beranduago, 'Abialdian' Askatasunaren Ibilaldiak berriz elkartu nahi ditu abertzale guztiak, etorkizunera-ko mezu itxaropentsu bezala.

'Abialdian' ekainaren 29an abiatuko da Iruñeatik, ia hilabete beranduago Gernikan amaitzeko, uztailaren 26an hain zuzen. Antolatzaileen esanetan, martxaren mezua argia da: "orduan bezala orain ere, gure ezadostasunak albo batera utzi eta ibilaldiari ekin behar diogu, gure Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeke aukera izan dezagun".

Hainbat ekitaldi

Baina martxa hurbiltzen den heinean, ugariak dira antolatzaileek prestatu dituzten ekitaldiak. Horrela, maiatzaren 25ean Euskal Herriko ehundaka mendi tontorretara igoerak egin ziren. Araban, esaterako, 80 mendi baino gehiagotan jarria izan zen 'abialdian, askatasunaren martxa'- ekimenaren logotipo eta ikurriña. Ikusten denez, atxekimenduak gora doaz.

Hurrengo hilean zabalago utsiko diogu gai honi, ekime-



1977. urteko 'abialdian' parte hartu zuten bi emakume. Aurtenean atxekimendua ugari espero dute antolatzaileek.

nak jaso izan dituen atxekimenduak zuenganatzeko eta, batez ere, 'Abialdian'ek Araban zehar egingo duen bidea argitu asmoz. Bitartean, norbaitek Araba aldeko antolatzaileekin kontaktuan jartzeko asmorik balu, honako telefonora dei dezake:

(908) 67 92 99.

ASIER PZ. DE KARKAMIO

'Ahoz aho, belaunez belaun' kanpaina amaitzear da egunotan

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udalak euskararen normalizazioa arlo guztietara hedatzeko asmoz antolatutako sentiberatze-kanpaina hilaren 8an amaituko da.

Burutzeke gelditzen diren ekintzak, guztiak Iparralde Gizarte Etxean izango direnak, honako hauek dira: ekainaren 2an Oihulari Klown antzerki konpainiak "Alfonbra magikoa" obra antzeztuko du 18.00etan eta 20.00etan; hurrengo egunean, arratseko 6etan, Virginia

Imazek ipuinak kontatzeari ekingo dio. Ekainaren 5ean, 19.30etan, "Euskal Herriko irudia telealbistegietan" gaiari buruzko hitzaldia izango da entzungai. Ekainaren 6an, alde zurretik egindako ipuin lehiaketaren sari-banaketa izango da eta 19.00etan, bertso saio bat ere eskainiko da. Azkenik, ekainaren 8an Florida Kultur Etxean dagoen "Ahoz aho, belaunez belaun" erakusketaren bukaerarekin batera amaiera emango zaio kanpainari.



Kanpaina honen bitartez, elkarrekin lan egin duten hiru erakundeek familiaren inplikazioa lortu nahi dute euskalduntze prozesuan: "alde batetik, euskararen erabilera eta belaunez belauneko jarraipena aragotzeko. Bestetik, familiaren egitekoa eskolak eta gizarteak dutenarekin lotzeko!"

XABIER ZABALETA

ordatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

K.I.k hartu du gose grebaren txanda

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRATZEKO EKIMENAK AURRERA DARRAI

Duela urte pasatxo Donostiako Artzai Onaren katedralean 'Senideak' taldeak hasitako ekimena aurrera darrai inolako etendurarik gabe. Dakizueenez, euskal presoak Euskal Herriratzea du helburu hamarnaka taldek eginiko gose greba amaigabe honek.

Hasera batean Artzain Oñean egi-

ten bazen baraua (talde bakoitzak astebetez), azkenaldian Euskal Herrian zehar burutzen da.

Horrela, esaterako, 'Komite Internazionalistak' elkarteko hainbat kidek hartu zuten gose greba ibiltariaren txanda iragan maiatzaren 24tik 31ra bitartean, eta bi egunez, 26an eta 27an, Gasteiza hurbildu ziren, Filologiako Fakultatean ateratako argazkian argi ikusten denez.

ASIER PZ. DE KARKAMO



Aintzinako eraikinen maketak erakusgai

EKAINAREN 15RA ARTE IZANGO DIRA KATEDRAL BERRIAN

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien eskutik, "Ars Lignea" erakusketadago ikusgai eguntan Gasteizko Katedral Berrian. Honen bidez XVI eta XVII. mendeetako zurginen lana hurbildu nahi zaigu, lantresna, mapa, plano eta maketa anitzen bidez.

Baina seguruenik, erakus-

keta honetan interesgarriena eraikinen maketak dira. Katedralak, beselizak, etxebizitzak, eta beste hainbat eraikinen miniaturrek, zurginen urrezko aroko ezaugarriak hurbiltzen dizkigute. Teilatuak finkatzeko metodoak, elizak eraikitzeke ere duak, etabar luzea da ikusgai, esan bezala, Gasteizko Katedral berrian, ekainaren 15 arte. Eta ez, ordea, Foru Aldundiek banatu duten diptikoetan agertzen den bezala: "ekainaren 15tik maiatzaren 8ra"!

Eskerrak orain Foru Aldundiak Hizkuntz Normalizaziorako Arautegia jada prest duen!

EDORTA SANZ



Caatinga marrazki-liburua euskaraz

INFOMART ARGIALETXE ARABARRAK EUSKARATU DU HERMANNEN KOMIKIA

Gojainen egoitza duen Infomart argialetxe arabarrak aukera ederra eskeini die berriz ere Euskal Herriko haur eta gazte denei, Hermann autore ezagunaren 'Caatinga' marrazki-liburua euskaratzerakoan.

Komikiak, XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran du kokapena, Brasil. Bertoko eskualderik pobreneko nekazariak matxinatu egin ziren, mugimendu sozial inportantea sortuz. Garai hartan, giza-injustizia askoren aurka burukatu behar izan zuten, bai eta modernitateak Estatuaren botereari eskeintzen zizkion armen kontra ere.

Dudarik gabe, aukera paregabea da honakoa, Hermannen marrazki ederretaz gozatzeko, euskaraz!

ASIER PZ. DE KARKAMO

ZINEMA KARTELERA

DENOK dakigunez, eguraldi onak iristearekin batera, pelikula ugari estreinatzen dira eta, antza denez, garai horretan sartu gara. Azken hilabeteetan Shakespeare-ren obra bat ikus ahal izan dugu (Romeo eta Julieta) eta orain "Hamlet" bere klasiko nagusia estreinatuko da zine pantailetan: lau orduko pelikula, Kenneth Branagh zuzendari ezagunak zuzendua. Bera da protagonista eta alboan Derek Jacobi izango du.

JOAN den hilabetean Frantziako Cannesko Jaialdia burutu zen eta han egon zen Bruce Willis bere "El Quinto Elemento" aurkezten. Filme horretan aipatzekoak dira, besteak beste, Gary Oldman eta Milla Jovovichen interpretazio borobilak. Bostgarren elementu bat bilatu behar dute, bestela mundua desagertu egingo da eta. Adi efektu bereziei.

ETA Francesco Rosiren historiazko beste filme bat aipatu behar dugu segidan. Pelikularen izena "La Tregua" eta Auschwitzen bizi izandako infernuaren historia kontatzen digu. Ez galdu John Turturrok egin duen lana.

"GRIDLOCK'D" izeneko Tupac Shaku-ren pelikulak bi drogazaleen gora-beherak kontatzen dizkigu. Drogak utzi nahi eta horrek sortarazten dizkien sufrimenduak agertzen dira.

DATORREN hilabetean ikusi ahal izango ditugun beste filme batzuk hauexek dira: "The Trigger Effect", "Airbag" behingoz estreinatzea espero dugu, "Dos Muertes" Sonia Bragarekin eta Ingalaterrako "Amo la vida".

DAVID ALVEZ

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Odol gatzapena edo koagulazioa?

OEE-REN VII. JARDUNALDIK INOIZ BAINO ARRAKASTATSUAGO

Osasungo Euskalduntze-ko Erakundeak (OEE) urtero antolatzen duen osasunari buruzko VII. jardunaldiak egin zituen Gasteizen joan den apirilean. Fernando Gomez Bustos koordinatzailea pozez gainezka agertu da larrialdiei buruzko jardunaldiek jasotako erantzunarekin, bere ustez, orain arteko "arrakastatsuenak" izan baitira. Hirurehun lagun inguruk hartu du parte, hauetatik laurden bat edo ikasleak izanik. "Hura ustekabe ederra jaso genuena hainbeste ikasle gure artean ikusita. Datu baikorra, euskal osasungoaren etorkizuna hurrengo belaunaldietan baitago".

Larrialdien gaia jorratu duen VII. Osasun Jardunaldi hauek lortutako atarramendu onak Osasungo Euskalduntze-ko Erakundearen behin-betiko sustapena ekar dezake Araban.

Dagoeneko zazpi urtez Euskal Herrian zehar osasun gai

ezberdinak euskaraz lantzen ibili eta gero (minbizia, zahartzaroko gaixotasunak, eritasun kronikoak, aurrerapen terapeutikoak, e.a.), erakunde hau orain ari da Gasteizko euskal eremuetan ezagun bilakatzen. Oihartzun zabala izatea ezinbestekoa da OEEK bere buruari ezarritako helburuak lortu ahal izateko: "maila zientifikoan eta gaixo-profesionalen arteko harremanetan euskara indartzea eta finkatzea da gure helburua", Salvador Zabaleta kideak esan bezala.

Baina osasungo euskalduntzearekin batera, erakunde honek antolatutako topaketen edukia maila ere kontu handiz zaintzen du, "jardunaldien kalitatea euskararen sustapenarekin bat baitator. Horrela, guk antolatutako jardunaldiak baliogarriak izan daitezke norberaren curriculumerako. Eta, bidenabar, era honetan, euskara bera bere irudi zientifikoa sendotzen joango da.

Aipatutako VII. Jardunaldi



EDORTA SANZ

Medikuntza ikasle ugari hurbildu izan da OEEK antolaturiko jardunaldietara. Argazkian, Sabino Padillak kirol medikuntzari buruzko mintzaldian.

hauek amaitu berri direnean, bertako antolatzaileek 1993an Gasteizen bertan gauzatutako "Gaixotasunak zahartzaroko" topaketen hiztegia kaleratu dute, egun dagoen terminologia arazo erraldoiari piskanaka-piskanaka erantzuna emateko asmoz.

Datorren urtean: "Neurozientziak"

Arrakasta handia lortzea arriskutsua da, hurrengo aldi batean maila hori berdintzea ere zaila delako. Zeregin horretan dabilta jadanik OEEKo Bilboko kideak datorren urtean Bizkaiko hiriburuan egingo diren neurozientzien inguruko jardunaldiak antolatzeko. Aipagarria da Holandan, EEBBetan eta Australian dauden euskal ikerlarietara dagoeneko harremanetan daudela, hauek beren ikerlanen berri eman dezaten.

Etorkizunari begira, Fernando Gomez Bustosek teknologia eta ikastaro praktikoa aipatu ditu datozen topaketen ezaugarri garrantzitsutzat. Teknologiaren

alorrean, hitzaldietan bertan erabil daitekeen sistema interaktiboa (pulsadore baten bitartez entzuleek parte hartze zuzena izan dezakete beren diagnostikoa edota iritzia emateko) eta internet azpimarratu ditu. Ikastaro praktikoa antolatzeari dagokionez, Fernandok hauen bidez kotasuna nabarmendu nahi du jardunaldien oihartzuna areagotzeko.

500 bat bazkide

Osasungo Euskalduntze-ko Erakundeak 1991an sortu zenetik hona 500 bat bazkide bildu dira. Hauetatik, gehienak medikuak dira eta, iaiztik, ikasleak dira bigarren lekuan kokatu direnak, erizainen eta beste profesionalen aurretik. Fernando Gomez Bustosek ikasleen parte hartzearen igoerari (bai bazkidetza, bai jardunaldietan parte hartzeari dagokionez) garrantzi handia ematen dio, euskara osasun eremuan murgiltzea hurrengo belaunaldien esku dagoelakoan.

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA



IRVSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73
TABERNA
JATETXEA



Enskarazko kale-izendegia Axularren salgai

EUSKALTZALE BATEK BERE KABUZ SALGAI JARRI DU

Gasteiz honetan ezusteko gehiagorentzako lekuri ez dagoela pentsatuko du batek baino gehiagok, baina bai oker pentsatu ere! Euskaltzale batek, inoren baimenik gabe eta bere kabuz, euskarazko Kale Izendegia fotokopiatu eta saltzeari ekin dio Axular liburudendaren laguntzaz. Gasteizko Udalak oraindik onartu ez duen euskarazko hiriko kaleen Izendegi berria, beraz, salgai dago eta soilik 200 pezetatan, fotokopiatze lanen gastua hain zuzen.

Haur kantu txapelketa Zigoitian

ARABAKO FINALA EKAINAREN 14AN IZANGO DA

Zigoitian ospatuko da aurturteko ekainaren 14an Arabako haur kantu txapelketaren finala. Maiatzaren 23an amaitu zen bertan parte hartzeko izen emateko epea eta dagoeneko dena prest dago egun horretarako. Bertan parte hartuko duten haurrek kantu zahar eta berriak abestu ditzakete, beti ere modu herrikoi batean, eta banaka zein taldeka aritu daitezke. Kantu txapelketa denez, epaimahaiak kan-



Jauregilanda kaleko kartela oraintsu jarria da

Jakin izan dugunez, jadanik Udaletik deitu omen diote Euskaltzaleon Elkartekoa den aipaturiko kideari, eginikoa burutzeko inolako baimenik ez duelakoan, eta bere ekimena bertan behera utz dezan eskatuz. Egileak, ordea, ez du atzerapausorik emateko asmorik, "duela 7 urte Udalak osaturiko Kale Izendegia Udaletxeko apal batean ahaztua baitago, eta Izendegi berriarekin gauza bera gertatuko delako honelako ekimenak aurrera ateratzen ez badira".

ASIER PZ. DE KARKAMO

tua soilik baloratuko du, nahiz eta kantariak musika laguntza izan.

Arabako haur kantu txapelketa Euskal Herri osoan egiten denaren atal bat baino ez da. Txapelketa hauek Iparraldean sortu ziren 1985ean, kantatzeko ohitura zaharrari indar berria emateko asmoz. Ekitaldi hark izandako arrakasta ikusita kantu txapelketa Euskal Herri osora hedatzeari ekin zioten.

Arabari dagokionez, 1987an antolatu zen lehen aldiz lehiaketa hau eta finala Bastidan egin zen Errioxako ikastolen eguna aprobetxatuz. 1989an Bagare Euskal Tokiak hartu zuen Arabako txapelketa antolakuntzaren ardura eta harrezkero urtero egin izan dira txapelketa hauek.

XABIER ZABALETA

Inigo Kastresana Palacios

EUSKALTZALEON ELKARGUNEKO KIDEA

Gasteizen, 1997ko maiatzean

Honako hau ez da gutun arrunt bat, ezta iritziz artikulua bat ere; zuretzat bereziki idatzitako oharra baizik. Beraz, adi eta arretaz irakur ezazu, arren.

Dakizunez, duela bi urte GEU elkarteak hiriko kaleen izenak ondo eta betiko finkatzearren, lan talde bat osatu zuen. Zeregin horretan Euskaltzaleon Udaleko euskara zerbitzua ere aritu ziren. Ondorioa: "Gasteiz hiriko kale izendegia" delako liburusk. Kale izenen zerrenda agertzeaz gain, zenbait aholku ere ematen dira, izendegi hori behar bezala erabiltzeko. Emaizta ezin hobea zinez!

Baina auzia ondoko hau da: Udal-gobernuak oraingoz ofizialtzat jo ez duenez, hainbat lagunek izendegi hori existituko ez balitz bezala jokatzaren dute, ez omen dakite euskarazko izendegirik dagoenik ere.

Gehiago itxaroterik ez zegoela ikusita, inoren baimenik izan ez arren, idazten ari den honek bere kasa izendegia zabaltzeari ekin dio (nire ausardia eta apaltasun falta barkatuko didazuelakoan).

Axular liburudendaren laguntzaz "Vitoria-Gasteiz hiriko kale izendegia" jada salgai dago, Arka kaleko 11. zenbakian. Salneurria? fotokopiatze-lanaren kostua soilik, hau da, berrehun pezeta, kartoizko azala eta guzti.

Honaino heltzen da zuretzat idatzitako ohar berezi hau. Baina bukatzeko zera erregutuko nizuke: zeuk ere euskal izendegia zabaltzeari ekin diezaiozula, eguneroko ihardueran izen hauek erabiliz. Ados bazaude primeran, eta hala ez bada... Tira, barkatu horrela zirikatu izana eta jaso ene agurra.



eguneko

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman **eek** n!

Zurekin 600.000 irakasle izango gara
2.300.000 ikasle euskalduntzeko

Jose

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

Euskara Gasteizko plazara ateratu zuten haurrek

Gasteizko hamabi ikastetxeek <<Hara bada euskaldunak gara>> jaia ospatu zuten maiatzean.



HIZU ETA HAMABI URTE BITARTEKO HAUR ETA GAZTETXOEK GASTEIZKO KALEETAN EUSKARAZ HITZ EGITEKO AUKERA PAREGAÑEA IZAN ZUTEN MAIATZAREN 16AN. EGUN HORRETAN, HAMABI IKASTETXETAKO GURASO ELKARTEK ANTOLATUTA HARA BADA EUSKALDUNAK GARA IZENEKO JAIA OSPATU ZEN.

Antolatzaileetarikoa batek azaldu digunez, jai honen helburua Gasteizen euskaraz bizi daitekeela adieraztea izan da. "Gasteizen euskaraz bizitzea posible dela eta helburu hori lortu nahian jende asko dabilela azaldu nahi izan dugu jai honekin: gasteiztarrok gasteiztarrontzat egindako jai xume bat, alegia. Azken batean, kalean euskaldunon presentzia

nabarmentzea nahi izan dugu".

Jaia arrakastatsua izan zen oso. Ikasle, irakasle eta guraso ugari partehartu zuen festan eta, horrenbestez, jai giroa nagusitu zen hiriko erdigune osoan.

Ondoko argazkian ikus daitekeen bezala, Foru plaza jendez gainezka egon zen Takolo, Pirritx eta

Porrotx pailazoez beren "Tantaka Yotanka" ikuskizuna eskaini zuten bitartean. Bertara hurbildutako guztiak, txikiak batez ere, erne eta adi egon ziren ikusakizunak iraun zuen bitartean eta atentzio handiz jarraitu zituzten hiru pailazoen bihurrikariak. Pailazoez plazan zegoen jende guztia dantzan jartzea lortu zuten azkenean.

Lehenago, ordea, izan zen beste ikuskizunik ere. Ikasleek kalejira bat egin zuten hankapalo, herensuge eta buruhandien laguntzarekin. Guztiak Foru enparantzara iritsi zirenean, egun horretarako bereziki egindako kantua abestu zuten denak batera eta ondoren, Xirri Mitxarroa maskotaren aurkezpena egin zuten. Arratsaldean, herensugeak, Gaztelu pus-

garriek eta buruhandiek jai giro atsegin eta polita barreiatu zuten kaleetan.

Gasteizen euskal ereduak dituzten ikastetxe publikoek horrelako jai bat antolatzen duten lehen aldia da. Abadano, Abetxuko, Adurtza, Angel Ganivet, Aranzabela, Bambi, Barrutia, Ikas Bidea, Luis Elejalde, Odon Apraiz, Toki Eder eta Umandi ikastetxeetako guraso elkarteek antolatu zuten jaia eta horrelako ekitaldien garrantziaz jabetuta, aurrerantzean ere orain hasitako elkarlanari jarraipena ematea espero dute. Beren asmoen barnean, urte osoan zehar horrelako ekintza bateratu gehiago egiteko gogoia azaldu dute. Hurrengo urte bukaren izan daiteke, jakin dugunez, Gabonetarako ere zerbait prestatzeko asmoa dute eta.

Xabier Zabaleta



arropa eta osagarriak
HÉMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

Zuhaitzi
PAPERDENDA
den-dena
biziriklatua

OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxillera, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

plató
TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10

22 65 64
GASTEIZ

ARABA euskaraz Gorabidean

Oionen ospatuko den Araba Euskaraz 97rako dena prest dago jadanik. Hamaseigarren edizio honetan Arabar Errioxan euskararen sendotze eta hedatzeari dagokionean, aurrerapausu handiak eman direla erakutsi nahi dute antolatzaileek, egindako lan eskergak fruituak ematen hasi delako.



San Bizente ikastola

URTERO BEZALA. Arabako ikastolen festa izango da aurtengoa ere eta helburu nagusi bat dute San Bizente ikastolakoek: erreforma dela eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako ikasleek behar duten egoitza berrirako baliabideak lortzea. Horrez gain, ospakizun handi honekin beste helburu batzuk ere lortu nahi dituzte: Euskal Herriko euskaltzale guztiei Arabar Errioxako Ikastolen eta euskararen egoera ezagutaraztea; euskararen inguruan bizi direnen arteko harremanak sendotu eta lanean segitzeko euskarria eskaintzea; oraindik euskarara hurbildu ez direnei horretarako gogoia piztea eta, ondo merezia dutelako, Arabar Errioxaren euskalduntzean lehendabiziko urratsak eman zituztenak omentzea.

San Bizente ikastola, 1978an sortu zuen euskara eta euskal kulturaz arduratua zegoen guraso talde batek. Sortu zenean hamaika ikasle baino ez zituen ikastola hark, egun 180 ikasle ditu: %65 Oion bertakoak dira eta gainontzekoak Biana, Iekora, Kripan, Labraza, Logroño, Moreta eta Meano herrietatik etorritakoak. Orain arteko ikasketxean 2 urteik 14 urte bitarteko ikasketak egin ahal izan dituzte.

Ikasle gehienek 1984an Oionen antolatu zen Araba Euskarazi esker egoitza berri eta egoki batean ikasi ahal izan dute, 84ko jai horrek bultzada handia ekarri baitzuen euskararentzat eta ikastolarentzat.



ARABA
euskaraz

Logotipoa eta lema

Horrelako jaietan askotan protagonismo berezia lortzen dute logotipoak zein jaiaren lema nagusiak. Antolatzaileak beraietaz baliatzen dira ospakizunaren mezu nagusia jende guztiarengana helarazteko.

Gorabidean

Arabar Errioxako eskualde honetan euskara eta ikastolen mugimenduaren norabidea zein den erakusten digun hitz bat aukeratu dute lematzat: Gorabidean.

Hitz honek bertako euskaldunen gogo, nahi eta helburuak biltzen ditu. Bidea ez da beti laua izan, gora-beheraz beterikoa eta neketsua askotan, baina beti euskararen gorantzako bidea egiteko prest gaudenez, iparra galdu gabe gora eta gora egiteko duten asmoa adierazi nahi dute lema horrekin.

Katxiren txanoa.

Logotipoak izaten dira horrelako jaietan beste elementu garrantzitsu bat eta, horregatik, bere diseinuak buruhauste bat baino gehiago sortu ohi du. Aurtengo logotipoan euskal jai hau non eta noiz ospatuko den agertzen da. Baita eskualdearen ezaugarri diren koloreak ere: berdeak, horiak eta granateak, hurrenez hurren, mahastiak, garia eta ardoa irudikatzen dituzte. Beste alde batetik lema adierazi nahi duen euskararen gorantzako bidea irudiaren bertikaltasunean islatzen da.

Azkenik, Oiongo bertakoa den ezaugarri bat agertzen da: Katxiren txanoa, hain zuzen. Katxi, herriko pertsonaia tradizioletakoa eta maitatuenetakoa da. Alogerako gizon bat da urtarileko jaietan urtero herrira itzultzen dena. Egundorietan bi koloreko txantxo-jantzian ibiltzen da: erdia gorri eta beste erdia berde. Buruan puntan bukatutako txanoa eramaten du bi kolorekoa hau ere. Musika banda kaleetan gora eta behera dabilenean, Katxi aurretik joaten da beti eta herriko toki jakin batzuetan irauli batzuk egiten ditu, habanera baten erritmoan.

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA ALTZARIAK ETA ATSEDENA

HOBEBE

Plo XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

01004 VITORIA-GASTEIZ

97ko Araba Euskarazi dagokionez, San Bizente ikastolak erronka berri bati egin nahi dio aurre: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aritzeko erai-kin berria jasotzeko baliabide ekonomikoak lortzea.

Oion ezagutzeko aukera

Oion, Euskal Herriko eskualde berezietariko batean kokaturik dago: Arabar Errioxan. Nafarroa, Araba eta La Riojaren arteko mugan hain zuzen ere, Logroñotik 4 kilometro. Eskualde horretan azken hamar urteetan biztanleen kopuruak gora egin duen herri bakarra da Oion eta egun 2.340 biztanle ditu. Oionek, guztiontzat ezaguna den Errio-

xako ardoaz gain, badu bestelako berezitasunik. Horieta bat trujala da. Trujal hauetan oriandik herrikoek norberaren kontsumorako olioia egiten dute. Arabar Errioxan guztira hiru trujal besterik ez dira gelditzen: Moretan, Lantziegon eta Oionen.

Hizkuntzari dagokionez, aldaketa nabarmena izan du azken urteetan, ikastolari esker hein handi batean. Oion herri erdaldunen tipologian dago sartuta baina euskalduntze prozesuari begiratuz ia euskaldunik ez egotetik 144 euskaldun eta 281 ia euskaldun izatera iritsi da, Eustat estatistika erakundeak 1992an emandako datuen arabera. Argi dago, Oion gorabidean doala eta Aurtengo Araba Euskarazek emango dion bultzadarekin auskalo noraino iritsiko ote diren.

Andoni Landak:

"Isdamendu sentsazioa gainditzeko beharrezkoak dira euskarazko ekitaldiak"

Arabar Errioxaren euskalduntze prozesuan ikastolekin batera euskararen hazia erein zuten gaueskolak ezin ditugu ahaztu, ezta Tiki-Ttaka euskaldunen elkarte bezelako taldeak ere. Askok, oztopoak-oztopo, ilusioz beterik, euskaraz bizitzera aukeratu dute eta euskararekiko jarrera aldatzea lortu dute.

Horregatik, eguneroko ihardueran, talde hauen lana oso garrantzitsua da Oion bezalako herri batean. Andoni Landa Araba Euskarazeko antolatzailea eta IKA euskaltegiko irakasleak esandakoak laburbildu ditugu ondoren.

15 urte badira inguru honetako helduen euskalduntzean lehen urratsak eman zirenetik. Gaur egun herri gehientsuenetan bada euskaltegiaren bat eta Oiongo euskaltegia da ikas prozesua azken

muturreraino eramaten dutenen topagune.

Andoni Landak azaldu digunez, Arabar Errioxa osoan, Bastidan hasi eta Biana bitartean, IKA euskalduntze eta alfabetatze erakundeak 180 ikasle inguru biltzen ditu eta horietatik 70 Oionen ari dira ikasten. Tiki-Ttaka euskaldunen elkartearen berriz, ikastoletatik eta euskaltegietatik ateratako euskaldunberriak elkartzen dira euskara erabili eta ikasitakoari eusteko helburuarekin. Azken talde hau duela lau urte sortu zen eta izen bereko aldizkaria kaleratzen dute. Urtean bi ale egiten dituzte eta 350 etxeetara banatzen dute. Ekainaren 15erako, egunkaritzo bat argitaratuko dute egun horretan Oionera hurbiltzen diren guztiei ikastolaren, euskaltegiaren eta Tiki-Ttaka elkartearen berri emateko.

Kanta

Hitzak: Jon Maia
Musika: The Starlites
Koruak: San Bizente
Ikastolako haurrak

Gorabidean
euskara gora
gorabidean
Arabar errioxan
Araba Euskaraz, gorabidean

Gorabidean
euskara gora
gorabidean
ikastoletan
Araba euskaraz, gorabidean

Oion, Araba
Oion, euskaraz
Oion, lur laua
euskarak... Oionen aldaparik ez

Oion, Hegoak
Oion, zangoak
Oion, geroan
lur gorrian... pausuak marraztu
bitez

Gorabidean...
Gorabidean...

Oion, kantari
Oion, dantzari
Oion, da ari
geroari... gorabidea emanaz

Oion, Araba
Oion, euskaraz
Oion lur laua
euskarak... Oionen aldaparik ez.

Gorabidean...
Gorabidean...



Arte Ederrei

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak

oleoak

akuarda

pintzelak

ikatzikiloak

kaballetak

lientzoak

olioak

etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2 2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14



HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑELA
KALEAN



RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Oiongo bi talde hauek Araba Euskaraz antolaketa taldean aritu dira eta urtean zehar kultur arloko hainbat ekitaldi antolatu dituzte festa zabaldu eta jendea girotzeko. Andoni Landaren ustez, euskaldunak bizi duen isolamendu sentsazioa gainditzeko behar-beharrezkoak dira euskarako ekintzak antolatzea urte osoan zehar. Aurten, besteak beste, hitzaldiak, antzerkia, txistularien emanaldiak, futbito txapeleketak eta abar antolatu dituzte. Horiez gain, herriz herri aurkezpenak egin eta komisiok sortu dituzte ekitaldiak antolatu eta jantzien salmentarako.

Andoni Landak aurreratu digunez, ekainaren 15ean ohiko ekitaldien artean bi berezi samarrak izango dira: Bertsolariak eta Herri kirolak hain zuzen. Orain artean, bertsolariek horrelako jaietan nahiko toki sinbolikoa izan dutela eta, benetako bi bertso saio antolatu dituzte. Batean bertsolari gazteak arituko dira eta bestean punta-puntako bertsolariak. Batean zein bestean gai jartzailerarekin arituko dira.

Herri kirolei dagokienez, erakustaldi huts bat baino zerbait gehiago egitea pentsatu dute. Horretarako txapelketa bat ekarri dute: lur gaineko sokatira txapelketaren ihardunaldi bat egun horretan Oionen egingo da.



Juanjo Angulo, San Bizente Ikastolako presidentea

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



euskara ikasteko aldaparik ez



PINTORERIA, 74 TFNOA-289780
ZALDIARAN PLAZA, 16 TFNOA- 244905
ERREGE ERREGINA KATOLIKOAK, 15 C TFNOA- 288922

Aurten Langraitzen

→ Dena prest da irailaren 21ean burutuko den Añanako eskualdeko Langraitz 97 euskararen aldeko festa burutzeko. Duela 2 urte jaiotako 'Euskara Añanan Mingaiean' (E.A.M.) Elkarteak antolaturiko festa honek Añanako eskualdeko euskaltzale guztiak elkartu nahi ditu. Aurtengoa bigarren edizioa da, iaz Kuartangoko Zuhatzun burutu baitzen lehena.

Hartara, 3.000 lagun inguru hurbildu ziren, asteburu osoan zehar egon ziren ekaitzak ahaztuz.

Hurrengo hilabeteotan festaren berri emango badizuegu ere, gauza batzuk aipatuko ditugu oraingoan. E.A.M. Elkarteak lau gunetan banatuko du Langraitz herria aipaturiko irailaren 21eko egunean: Txikilandia, Gaztelua, Eskola eta Herria. Lauak ibilbide eder batek elkartuak egongo dira eta bertan gauza anitz aurkitu ahal izango ditu hurbiltzen denak. Besteak beste, erakusketak, artisau azoka, rockodromoa, haurrentzako jolasak, dantzariak, bertsolariak, eta beste ekitaldi ugari izango dira. Festa amaitzeko kontzertua izango da, oso entzungarria gainera, punta-puntan dauden lau taldeekin: Su ta gar, Pi L.T., Maixa ta Ixiar, eta Enbor.

Egun osoko festa honetan ateratzen diren irabazi guztiak Añanako eskualdean euskara bultzatzeko erabiliko dira, besteak beste euskaltegiak sortu eta indartzeko.

A.P.

Irailaren 21. eguna
langraitz 97
21. DE EUSKARA MINGAIEAN



'Iraganaren ondare' izango da aurtengo leloa, horixe baita, Langraitzeko gaztelua bezala, gure hizkuntza

Aintzinaan bezalaxe

Herriko zaharrenek erruz gogoratzen dute Isidro deunari azkenengoz dantzatu zitzaioneko eguna. Mendetan beren dantzarik eza-gunena izan zena oroi menen kuxan gordeta izan dute azken mendearen zatirik handienean. Aurten, ordea, berriz dantzatu izan diote, aintzinako trajeekin gainera, gesaltzatarrek bere dantza Isidro nekazariari.

GUTXITAN izan du Arabako hego-mendebaldean ia galtzen den herri txiki honek iragan maiatzaren 18an bizi izan zuen festagiroa. Ez zen gutxirako ere. Izan ere egun horretan, aintzinaan hain herrikoiztat zuten Isidro deunaren dantza eskeini zieten herriko hainbat gaztek bertan bildutakoei.

Hain izan zen ezaguna bere garaian Isidro deunaren dantza gesaltzatarra, Arabako eta Euskal Herriko hainbat dantza taldek beren erreperatorioen barne badutela. Gesaltzan bertan, ordea, ahaztua zegoen erabat, eta horrexegatik bizi izan ziren egun hartan une hunkagarri ugari.



Gesaltzatar labela

200 biztanle inguru soilik dituen herrixka honi, ez zaio, itxuraz, ezer falta. Dantza propioak baditu, gazteek ederto erakutsi ziguten bezala. Dantzatzeko musika ere propioa: "Gesaltza" fanfarrak sortzen baitu. Eta hori gutxi balitz, erdi aroan herrian erabiltzen zen trajea ere, berreskuratu izan dute egun horretan janzteko.

Baina ez da ez, istorioa hor bukatzen. Festa ezin hobeto amaitzeko, herri kirolak egon ziren eta bertan, nola ez bestela, "Gesaltza-

ko Tigrea" herriko harrija-sotzailea aritu zen besteak beste. Eta nola aritu! Bere saiakera ez zen makala: Armentia landetan lortu berri duen 240 kilotako marka pertsonala berdindu.



Bere lagun mina den Iñaki Gil ezagunaren 'speaker' lana ez zen beharrezkoa izan gesaltzatarren animoak piztutzeko, eta hauen guz-

tien airearekin erraz altxatu zuen Isaac Martinezek harri puxka koxkorra. Eta birritan gainera! Sekulako marka 93 kilo besterik pisatzen ez duen gaztearentzat. Festa bukatzeko era egokia, bai jauna!

Asier Pz. de Karkamo



HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta 9 behea tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

Q EU GASTEIZeko irakurleek ezagutzen dute Iñaki Gaunaren eskutik aurtan bertan sortutako abesbatza berria. Otsailean ekin zioten lanari, oraindik koroak izenik ere ez zuela, eta izena eman zuten hogeit hamar lagunak oso gustora aritu diren arren, arazo batzuek abesbatzaren etorkizuna kolokan jarri dute.



abesbatza jaioberriaren S.O.S. deia

IÑAKI Gauna zuzendariak azaldu duenez, arazoa ez da lagun gutxi izatea: "Hogeit kantarirekin abesbatza batek aurrera egin dezake, baina gurean gizon guztiek ahots berdinean sartzen dira: bari-tonoak dira, tenorerik ez daukagu. Horrek errepertorioa izugarri mugatzen du, hiru ahots baino ezin ditugulako egin". Hori dela eta, ikastaroa amaitu arte orain arte bezala lanean jarraituko

*Tu Invernadero
zure lore sortak*

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

J A T E T X E A

EYSKTL OKELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

badute ere, irailean abesbatza sendotzeko kanpaina gogorra egiteko asmoa dute taldeko arduradunek.

Lan handia egiteke dutela onartzen dute, baina aurrera egiteko itxaropena dute. "Abesbatza bat osatzeko lagunak aurkitzea lan gogorra izaten da beti, eta gure kasuan are zailagoa, kantariak euskaldunak izan behar dutelako eta Gasteizen euskaldunok gutxiengoa gare-lako, oraindik ere" azaldu digu Iñakik. Irailean jende gehiago biltzeko asmoz, izen emateko epe berri bat irekiko dute eta kanpainak emaitza onik emango ez balu, Araba osoan kantari euskaldunak bakarrik osatutako abesbatzaren bidea eten egingo litzateke: "Bestelako pretentsiorik gabe, kantatzeagatik kantatzea, beti

ere, atsegina izaten da. Baina behin abesbatza batean hasi eta gero, koroak motibazioa behar du, jende aurrean aritu, ikasi duena erakutsi... Eta hori lortzen ez badugu, ez dakit aurrera jarraitzea merezi duen".

Entsaioak duela hiru hilabete hasi ziren arren, irailean izena ematera animatzen diren lagunak ez dute inolako arazorik izango taldearen martxa jarraitzeko; horixe adierazi digu, bederen, Itziar de Blas koro horretako abeslari batek: "Agian, batzuek atzera egingo dute otsailean hasi ginela jakitean, baina ez dezatela beldurrik izan, berehala moldatuko dira eta bestea antzera".



Aurrerapen nabarmenak

Zuzendariaren ustez, "Lanean daramatzagun hiru hilabeteetan aurrerapausu nabarmenak eman ditu taldeak. Gai-nontzerakoan, hemendik iraila bitartean ahotsa trebatzen eta kantak lantzen jarraitzeko asmoa dugu, lagun gehienak orain arte abesbatza batean inolako esperientziarik ez dute eta".

Irailetik aurrera "serioago" arituko omen dira, "nahiz eta orain artekoa ere lan gogorra izan". Datorren ikasturtean gauzak ondo egiteko nahia azaldu digu Iñakik: "Cristina Jaen eta biok Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea antolatutako zuzendaritza ikastaro bat egiten ari gara, gauzak zuzen egiteko asmoz".

Irailetik aurrera, beraz, "entsaioak eta asistentzia ongi finkatu beharra dago. Orain arte, entsaioetara joatea ez da beharrezkoa izan ikasturte erdian hasi ginelako eta jendeak beste konpromezu batzuk zituelako. Irailean, ordea, partaideei lehenastu-nak ezartzea eskatuko zaie".

Gauzak horrela, jende aurreko lehenengo jarduna urrun samar dago oraindik. Iñaki Gaunaren iritziz urtebe-te inguru behar izaten da ahotsa trebatu eta kanta sorta prestatzeko, kontzertu bat eman aurretik. Hala ere, koroak emandako aurrera pausak jendeak ikus ditzan, ikasturtea amaitu aurretik barne ekitaldi bat egitea pentsatu du zuzendariak: "Ez daukat oso argi zer izango den, baina oporrak hartu aurretik zerbait egingo dugu". Animo, bada, entzuteko prest izango gara eta!

Leire Lopez de Aberasturi

Edonor da kantatzeko gai

"Kantu koraleko musikari famatu batek zera esan zuen behin: edonor izan daiteke kantatzeko gauza, abesteko teknika behar bezala landu eta menperatuz gero. Nik teoria hori neureganatu egiten dut" azaldu digu Iñakik. "Trebatu eta gero, batzuek besteek baino hobeto egingo dute, baina edonor dago abesbatza batean nolabaiteko aportazioa egiteko moduan".

Teoria horretatik abiatuta sortu zen abesbatza eta, horregatik, koro horretako kide izateko bi baldintza betetzea nahikoa da: kantatzeko gogoa eta euskalduna izatea, alegia. "Gehienok ez dugu inolako esperientziarik eta ez dugu sekulan solfeo

ikasketarik egin. Euskarari dagokionez, euskara gure komunikatzeko tresna dela jakin behar du jendeak, baina euskalduntze prozesuan dagoen jendea ere onartzen dugu. Are gehiago, edonorentzat euskaraz hitz egiteko aukera ona izan daiteke, ezta?" adierazi du Itziarrek, koroak abeslarietako batek.

Abeslari gehienek esperientziarik ez izateak, bestalde, gauzak zaildu egiten dituela onartu du zuzendariak: "Egia esan, zaila da. Baina hiru hilabetetan alde izugarria nabaritu da eta jende gehiago lortuz gero, aurrera egin ahal izango dugu".

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

Euskal folklorea ere bai, baina ez hori bakarrik

EUSKARAZ aritzea da oraindik izenik ez duen abesbatza honen berezitasun bakarra. Beren kantu jarduera, dena den, ez dute hizkuntz arrazoiengandik mugatzerik nahi. "Oraingoz euskal folkloreak kantak prestatu ditugu gehien bat, baina hasi berriak garelako eta kanta ezagunenak erre-zagoak direlako. Hala ere, erroman-tizismo garaiko kanta batzuk eta Pangué Lingua bat ere landu dugu".

Horrela, bada, euskal kanta tradi-zionalak erabat baztertu gabe, erre-pertorioa zabaltzearen aldeko apus-tua egin du koro jaioberriak. "Nik nahiko garbi daukat, euskaraz baka-rrik arituz gero, abesbatza guztiek abesten dituzten kanta berdinak abestu beharko genituzke eta ni horiek entzuteaz nahiko nekatuta nago" adierazi du Iñaki Gaunak.

Momentuz errepertorioaren auke-raketa baldintzatuta dago, ez hiz-kuntz arrazoiengatik baizik eta jende nahikorik ez egoteagatik. "Hori dela eta, zenbait kantetan musika tresnak sartzea pentsatu dut, ekaina bitartean behintzat". Orain gutxi lantzen hasi ziren Oskorri taldearen Aita-semeak kantaren egokitza-pena eta ikasturtea amaitu arte landuko dituzten beste kanta batzuk kitarra, txirula eta soi-nuaz lagunduta prestatuko dituzte.



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

hileko liburuak



HERRIKOIA aholkulari

Gauak eta hiriak

Ur Apalategi Idirin

Elkar argitaletxea

Donostia-Baiona, 1997

Ur Apalategi Idirin (Paris, 1972). Zuzenbidean lizentziatu zen Baionan, gero literatura ikastera jo zuen Bordelera, lizentzia lortu ondoren, tesia egiten ari da gaur egun, euskal literatura garaikideaz. Baionako idazle gazte honek poema liburua kaleratu zuen Unai Goieaskoetxearekin batera, "Erdi gunek" (Maiatz argitaletxea).

Felix, Antton eta Muriel dira istorio honetako protagonistak, eta hiruren artean eratzen diren harreman mota guztiak dira nobelako gaia: maitasuna, menpekotasuna, jelsia, adiskidetasuna, gorrotoa...

elkarrekin uztartzen dira triangelu nahasi batean. Baina betiko triangeluetatik eta pertsonaien azterketetatik haruntzago doa Apalategi. Baionako karriketan, Bordelen eta Donostian barrena pasiatzeko aukera. Hiriak gauez erabat aldatzen dira, ezberdin bihurtu.

Apalategik ez du idatzi batere iparraldeko prespektiba batetik, Euskal Herriko prespektiba orokor batetik idatzi du, istorioa. Baionako 24 urteko gazte honen lehen liburua euskara batuan idatzita dago, agian publiko zabalago bati begira.



IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IRAKASLE ESKOLAK zera jakinarazten du:

1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela honako karrera hauetan:

• MAGISTERITZA

Espezialitateak:

- ... HAUR HEZKUNTZA
- ... HEZKUNTZA BEREZIA
- ... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

• HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura.

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakunde kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA,
20540 ESKORLATZA
Tel: 943/ 71 41 57

geu gasteiz

Urtur



**Ekainaren 22an
IGANDEA**

**GEUrekin
Mendira**

BERIAIN (1496 METRO)

SAN DONATO

irteera:

- goizeko bederatzi eta erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean

itzulera:

- Sak aldera

**TELEFONOA: 28 23 16
(MAITE)**



URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA • APIRILA • MAIATZA • EKAINA •
UZTAILA • ABUZTUA • IRAILA • URRIA • AZAROA • ABENDUA

MUSIKA

KONTZERTU-ERRALDOIA

NOIZ:

Ekainaren 7an, larunbata.

NON:

MENDIZABALAKO ZELAIETAN

NORTZUK:

EXTREMODURO

REINCIDENTES

KAOS ETILIKO

LA POLLA

PARABELLUM

MANOLO KABEZABOLO

• sarrera: 1.800 pezeta

ERAKUSKETAK

AHOZ AHO, BELAUNEZ BELAUN

Familia eta eskola ezkararen belaunez belauko

jarraipen bide gisa

NOIZ:

Maiatzaren 21etik ekainaren 8ra

NON:

Floridako Kultur Etxean

ANTOLATZAILEAK:

Eusko Jaurlaritzak, Kultura Saila

Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara

Saila

Gasteizko Udala, Kultura Saila

GESALTA, BIHOTZEAN, ARGAZKI-ERAKUSKETA

NOIZ:

Ekainatik abuztura bitartean

NON:

Añanako Udaletxean, Gesaltzan

ANTOLATZAILEA:

Gatzagain argitarapenak

IKASTAROAK

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

NOIZ:

Matrikula epea ekainaren 2tik 30era

NON:

Iruñean, uztailak 14-26

Baionan, uztailak 7-12

ARGIBIDEAK:

BAIONA

II J. LAFITTE KARRIKA

TEL. (07-33) 559256056

BILBO

CONHA GENERALA 25. 1.

TEL. 94 - 1217115

AFRIKA IPARRALDEN

NON:

Iparalde Gizarte Etxean

EMAKUME AFRIKARRARI BURUZKO ARGAZKI-

ERAKUSKETA

NOIZ:

Ekainaren 9tik 13ra

SUKALDARITZA AFRIKARRARI BURUZKO LANTEGIA

NOIZ:

Ekainaren 9tik 11ra (izena emateko epea ekainaren 8a baino lehen)

KONTU KONTARI

NOIZ:

Ekainaren 10a, arratsaldeko Getatik 7etara, 1 eta 12 urte bitartekoentzat. (izen emateko epea ekainaren 9a baino lehen)

"IPARRALDE ERITIMO AFRIKARRAZ" JAIA

NOIZ:

Ekainaren 13an, arratsaldeko Grotan

Iparalde Gizarte Etxea

Zuberoa plaza z/g tel: 16 17 50

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Mannuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 11 88 95

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe

Kutxileria 23

1997ko ekaina

Olaranbe

futbol saskia

gasteiz

Jaen, Talavera eta Figueres. Horiexek ditugu Aurrera taldearen arerioak play-offean. Hiru hiri horietan ez zuten Gasteizko eki poaren berri handirik eta, jakinmina nolabait asetu nahian, Jaeneko, Gironako eta Toledoko kazetariak Gasteizera deitzen zuten informazio eske. Ez gintuzten sinesten. Antza denez, 25 milioiko aurrekontua, 700 bat zaletu eta 50.000 pezetako soldatak ez dira aski Bigarren Mailara igotzeko play-offa jokatzeko. Olaranbeo mutilek, ordea, hori egia izatea lortu dute, futbolearen ere dirua ez baita dena.



Emilio Ubis

AURRERA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Hurrengo urtean Aurrerako jokalaririk batzuek Alavesen jokatu beharko lukete"

EMILIO UBIS AURRERA DE VITORIA TALDEKO BURUA DUGU. PRESIDENTEA EZ BADA ERE, BERA DA OLARANBEKOEN NAGUSIA. TALDEAREN KAMISETA GORRIA HAINBESTE MAITE DUEN HONEK 28 URTE EMAN DITU GASTEIZKO FUTBOL TALDEAN ETA BERE ARDURAEAN AURRERAK GORA EGINDU AZKENENGO URTEOTAN. EGUNGO FRUITUAK JASOTZEKO, ORDEA, LAN GOGORRA EGINDU BEHAR IZAN DU UBISEK: INSTITUZIOEKIN BORROKAK, KOMUNIKABIDEKIN TIRABIRAK, BURUHAUSTE EKONOMIKOAK... ETA AZKENIK, SARIA: BIGARREN MAILARA IGOTZEKO PLAY-OFFETAN IHARDUTEA.

Eguno Aurrera de Vitoriako jokalaririk gehienak txiki-txikitatik daude Olaranben...

Gurea harrobiko lana da. Aurrerako jokalariek ez dituzte milioiak irabazten, gurekin daude Olaranbe beren etxea dutelako. Mutil koskorak zirenean, Aurreran sartu ziren eta hemen hazi dira. Gazte mailan Estatuko onenekin (Real Madrid, Barcelona, Athletic) lehian aritu ziren haiek gaur Bigarren Mailara igotzeko play-offean ditugu. Aurrerakoa eta Aurrerazalea izatea erlijio berezi bat da guretzat.

Dirua aipatu duzu. Hemen dauden jokalaririk

guztiek 50.000 pezeta irabazten dituzte hilean. horrekin bizitzetik ez dagoenez, batzuek ere alde egiten dute.

Bai, gurekin aritutako askok Lehen Mailan jokatu dute. Adibideak ugari dira: Peio Uralde, Mikel Kortina, Txelis Baroja, Pablo Gomez... Futbolearen horixe gertatzen da: batzuek futbola-riak eta gizonak egiten ditugu, eta beste batzuek erosi egiten dituzte. Dena den, Aurrerako jokalariek badakite beren alde agertuko garela beti eta momentu jakin batean jokalariairentzat onena alde egitea bada, guretzat ere bai.

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisaan lanak
lortategi eta berrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfn-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

Herreria 38, behe
25 25 03



San Antonio, 39

Behin baino gehiagotan instituzioek ez dute zuenkin zintzo jokatu. Komunikabideekin ere haseratu zara askotan. Baina Aurreraren arazorik larriena ez al da zaletu gutxi izatea?

Alaves Arabako lehen taldea dela argi dugu. Zoritxarrez, Olaranbe ez da Mendizorrotza bezalakoa. Hiritik kanpo dago eta bertara joatea ez da eroso. Ez dakit nori, baina baten bati ondo dator- kio esatea gu Deportivo Alavesen etsaiak garela. Hori gezurra! Ni hemen naizenetik, 160 jokalarik inguru Deporti-

vo Alavesera joan dira.

Beste batzuek esaten dute Athleticentzat egiten duzuela lan...

Alavesek egiten duen bezalaxe. Horra hor Ivan Campo. Aurtan igotzen ez bagara, hainbat jokalarik Gasteizetik alde egingo dute, Bigarren Mailan jokatze-ko kalitatea dute eta. Ni al naiz horren erruduna? Orain lau urte gure jokalarik batzuk Mendizorrotzara joan ziren eta ez zitzairen aukera bakar bat ere eman. Nik nahiko nuke Aurrerako joka-

lariak Deportivo Alavesen ikustea dato- rren urtean, baina Alaveseko arduradu- nek ez badute berdin pentsatzen, zer egingo diogu?

Zenbat aldiz esan diozu zeure buruari dena uzteko?

Egunero behin gutxienez. Baina ez dut utziko, ezta pentsatu ere! Hala eta guztiz ere, buruhauste handiak izaten dira, adi- bidez, instituzioekin. Politikariei ede- rrak esango nizkieke, baina jasan egin behar eta aurpegi ona jarri, gainera.

Carlos Lasheras

AURRERA TALDEKO JOKALARIA

"Deportivo Alavesek eta Aurrerak elkarrekin egin behar lukete lan"

AURRERAKO JOKALARI BAT AUKERATZERAKOAN, EZ DUGU ZALANTZARIK IZAN. CARLOS LASHERA- SENGANA JO DUGU. AGIAN EZ DA AURRERA TALDEKO JOKALARIAREN EREDU EDO PROTOTIPOA, GASTEI- ZETIK KANPO URTE BATZUK EMAN DITU ETA. BAINA CARLOS HAMAIIKA TALDETAN IBILIA DA, DEPORTI- VO ALAVESEN, BARAKALDON, MALAGAN..., GASTEIZKO BI TALDE NAGUSIAK, HOTS, DEPORTIVO ALA- VES ETA AURRERA EDERTO EZAGUTZEN DITU, BADAHI NOLAKOAK DIREN PLAY-OFFAK... LABURBILDUZ, ERABAKIA GURE ESKUETAN ZEGOENEZ, HONA HEMEN CARLOS LASHERASEKIN IZANDAKO SOLASALDIA.

Deportivo Alaves eta Aurrera de Vitoria taldeen arteko harremanak ez dira onak. Zuk bi taldeetan jokatu duzu. zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

Gasteiz bezalako hiri batean, bi talde garrantzitsu egonik elkarrekin egin behar lukete lan, baina... Helburua talde handi bat eratzea izan beharko luke, baina hemen bata zein besteak bere kasa aritzea nahiago du. Errua denon artean banatu beharra dago, bi taldeen zaletuak ere errudunak baitira. Nik uste dut elkarrekin lan egin behar luketela.

Zergatik etortzen da hain jende gutxi

Olaranbera?

Egin dugun denboraldia ikusgarria izan den arren, 700 bat zaletu etorri ohi dira Olaranbera. Nik ezin dut hori ulertu. Ez dugu jakin jendea erakartzen... Ez dugu asmatu edo zerbaitek huts egiten du. Jendeak gure lanaren berri izan nahi du, baina gero ez dira gu ikustera etortzen, ez gaituzte laguntzen. Hori aldatzea da guztion erronka.

Bigarren Mailara igotzeko norgehiagokak gaizki hasi ziren zuentzat...

Aurrera de Vitoria ez da Jaen bezalakoa. Aldea oso nabaria da: azpiegitura,

aurrekontuak, atzean dituzten zaletuak... Gainera, eurek hamaika play-off jokatu dituzte, gu aldiz, lehendabizikoz gaude horretan murgilduta. Profesionalak dira eta horrelako talde bati aurre egitea oso zaila da.

Golak egitearekin amets egiten jarraitzen duzu, ezta?

Nire oheak ederki daki hori! Ilusio handiz jokatzen ari naiz play-offa. Futboleak jokatzeari goiz utziko diot eta gazte baten moduan zelairatzen naiz.



LANDABURU AKADEMIA KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ!!!

GUATEMALA - 12, BEHEA TFONOAK: 12 09 50 / 909 42 88 36

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu
GASTEIZ**

INPRIMATEGIA

MIKO
izozkiak

Blas Ziarreta

ENTRENATZAILEA

"Orain Aurrera leku guztietan ezagutzen dute"

Blas Ziarreta iaz denboraldi hasieran heldu zen Olaranbera. Entrenatzaile santurtziarrak premiazkoa zuten indarra eman die Aurrerako jokalariei. Batzuek ziotenez, entrenatzaile gogorra behar zuten eta horretarako zein hobe Ziarreta baino. Azken 25 urteotan Bizkai-ko taldeetan aritu den entrenatzaileak ekipo ezberdinetara joateko aukera izan du aurtan, baina gasteiztarrekin zuen hitza bete du. Momentuz, Lezamatik deitzen ez dutenez, Gasteizen da Blas Ziarreta.

Blas, ez duzu kotxerik, nola egiten dituzu Bizkaitik joan-etorriak?

Ez dut kotxerik, gidatzeko baimenik ez dudalako. Ez dakit, behar bada, Aurrerari eskatu beharko dizkiot kotxea eta gidaria. Dena den, ez daukat arazorik. Gehienetan lankide batzuekin egiten ditut joan-etorriak eta bestela, autobusez edo trenez, ordutegiak ederto ezagutzen ditut!

Aurtan Bigarren Mailako talde batzuek beren entrenatzailea izateko deitu dizute, hala ere ez duzu Aurrera utzi nahi izan. Zergatik?

Gizon-emakumeek hitza bete behar dute, horixe da nire lehen araua. Hona etortzean, banekien nolakoa zen Aurrera: harrobia lantzen duen talde batera nentoren eta hori dut atsegin. Nik Aurreran arrakasta izatea nahiko nuke eta horretan gabil-tza jo eta su. Egun Estatu osoan ezagutzen gaituzte eta oso pozik nago hemen, benetan.

Baina, zu bezalako entrenatzaile batek ez du lekurik Lezaman?

Hori bertako arduradunei galdetu beharko diezu. Lezaman ez nago, nahi ez dutelako. Uste dute beste batzuek hobeto egiten dutela lan.

Zerk harritu zaitu gehien Aurreran?

25 urte eman ditut entrenatzen, baina ez dut inon aurkitu hau bezalako familiarik. Hemen guztiak dira lagunak, beste ekipo batzuetan taldetxoak daude. Hemen, ordea, partidua edo entrenamendua bukatzean, guztiak elkarrekin joaten dira tabernara. Parrandak ere nik uste dut elkarrekin egiten dituztela, je, je...



ARERIOAK PLAY-OFFEAN

JAEN

Municipal Victoria zelaian jokatzeko dute andaluziarrek eta bertara 4.000 bat zaletu hurbiltzen dira igandero. Ederto ezagutzen dute nolakoa den play-offa, bost aldiz jarraian jokatu baitute. Oraingoan, eta Gasteizen irabazi ostean, igotzea dute helburu. Hori lortzeko asmoz, zuzendaritza taldeak 110 milioi bildu ditu aurtengo denboraldirako. Jokalaririk aipagarrienak honako hauek: Roteta anaia gipuzkoarrak eta Chumilla. Jaenen gogoan dute Alaves, bertan arabarrek Bigarren Mailara igotzea lortu zutelako orain bi urte.

FIGUERES

Arabako futbolak aspaldiko lagunak ditu Figueresen. Izan ere, hantxe daude, besteak beste, Peio Bengoetxea Aurrera taldeko entrenatzaile ohia eta Deportivo Alaveseko Manu Muñoz eta Jose Luis Peña jokalaria ohia ere. Dali margolaria jaio zen herriko futbol taldeak orain lau urte jokatu zuen Bigarren Mailan eta ordutik hainbat play-offetan murgilduta izan dugu, esaterako, orain hiru urte Deportivo Alavesekin aritu zen multzo berean. Aurrekontu garrantzitsua duten arren, Jaeneko baina txikiagoa da, 105 milioikoa alegia.

TALAVERA

Hasieran areriorik makalena zirudienak ondo hasi zuen igoera fasea. Talavera de la Reina hirian 89.000 lagun bizi dira eta horietatik 2.000 bat hurbiltzen dira zelaira. Hantxe, Lehen Maila ezagutzen duten bi jokalaria izan dira taldeko izarrak, batetik Gijoneko Sportingin jokatu zuen Ballesteros; eta bestetik, Engonga anaietako bat, Julio alegia. Denboraldiari aurre egiteko 88 milioiko aurrekontua bildu dute.

Ismael Díaz de Mendibil



ZAHAR SENDO ZIÑDO

GASTEIZKO BATZORDEA

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

geu gasteiz KirolakNahi dugu hitz eta jolas



Joseba Gorostiza

GOZE hirian euskararen berreskurapenaren prozesuan ari garen honetan, arlo guztietan aurrerapausoak ematea ezinbestekoa da. Egun gure hizkuntzak esparruak behar ditu, "euskara plazara" hainbestean entzundako le mari edukiera emateko. Ibilbide honetan, "Gasteizen euskaraz nahi dugu hitz eta jolas" abestiaren esaldia harturik praktikara eramateko, **EUSKARRI KIROL ELKARTEA** sortu zen aurtengo denboraldian.

Lehenbiziko pausua ematea beti zaila da. Horrexegatik, hasierako kirol bide honetan zerbait egitea zen helburua. Modu honetaz, lau talde

sortu ziren kirolari eta entrenatzaileek beraiek bultzaturik. Denboraldi hasieran hauen ahaleginari esker futbola, areto-futbola eta saskibaloiko taldeek ibilbideari hasiera eman zioten. Amaitzean dagoen denboraldian hor aritu dira berrogeita hamar kirolari baino gehiago gure hizkuntza zabaltzen futbol-zelaietan eta kiroldegietan.

Kirol elkartearen euskarriak hiru ditugu: kirolariak, entrenatzaileak eta bazkideak. Hiru zutabe hauek ondo elkarturik sendotasuna eman behar diote "kirola euskaraz" izenburuko proiektu honi. Egia esanda, aurtengo

denboraldian helburua futbol-zelaietan eta kiroldegietan egoitea zelarik, neurri handi batean zokoraturik izan dira horietako bi, bazkideak eta entrenatzaileak, alegia.

Hurrengo denboraldiari begira, gure erronkak hortik joan behar du. Bazkide kanpaina burutzea, elkarte eta bazkideen arteko harremanak sendotzea, entrenatzaileei prestakuntza ikastaroak eskaintzea eta guztion arteko kirol jaieguna egi-tea.

Aurtengoari buruz esan behar da balantzea oso baikorra izan dela. Kirolari eta entrenatzaileen lanari esker posible egin dute gure hirian kirolean euskaraz aritzea. Beraiek merezi dituzte euskaltzale guztion txaloak. Guk aukera izango dugu berotasun hori erakusteko partiduetara joa-nez.

Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA


PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



kide



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Haize berriak energiaren alorrean

... eta erantzunik gabeko milaka kezka

"Baliteke". Bai, sekula hitz honek, edozein gai hartuta, ez du hainbeste garrantzirik eduki. Ez behintzat, guk oraingoan aurkeztuko dugun gaiean duenaren antzera. Horra adibide batzuk: Baliteke EAEn laster haizearen indarrak energia lortzen duten Parke Eoliko zenbait eraikitzea. Hala izatekotan, baliteke gehientsuenak Arabako herrialdean kokatuak izatea. Baliteke ere, Salbada, Elgea eta Arkamu mendilerroetan ezartzea lehen haize-errotak. Baina "baliteke" guzti hauek erantzun zurrak bat ateratzea gauza zaila da oraindik, Eusko Legebiltzarrak "baliteke" askoz gehiago dituen 2.005. urtera begira prestaturiko plangintza Jauriaritzara aurkeztu dion arren. Beraz, erantzun bila ez, baizik eta balizko haize-erroten kokapen posibleengatik afektatuak izan zitezkeen eritziak jasotzera abiatu ginen, Bologoen Eskolak gai honen inguruan antolatutako jardunaldiak. Hau aldrebeskeria!

GAI HAU BERE OSOTASUNEAN ULERTZEA ZAILA BADA ERE, ZENBAIT ABIAPUNTU KONTUAN HARTZEN BADITUGU LANA ERREZTEN ZAIGU ERABAT. BATETIK, MUNDUA ERDI DEU-

SEZTU DUGU, HORI ARGI DAGO! MILIOKA URTEZ ARMONIAN BIZI IZAN DEN NATURA, MENDE BAKAR BATEAN HANKAZ GORA UTZI DUGU XX. MENDEKO GIZAKIOK. BESTETIK, ETA HAU ERE ARGI DAGO, ENERGIAK AGINTZEN DU MUNDU HONETAN.

Energiarik gabe ez dago ezer, eta energia produzi-tzen duten indus-triek maneiatzen dituzte mundu osoko interes eko-nomiko eta politi-koak. Estatu Batu-etan, Errusian, Eu-ropan, eta beste leku guztietan pe-troleo, gas eta bes-te energia iturriak eskuetan dutenek agintzen dute.

Hortik abiatuta, gatazka sortzen da, mundua sal-batu behararen artean eta ener-gia etxe erral-dioen interes ekonomikoen artean. Eta hor dago EAEn (Nafarroan ere baina ez hain argi), energia eolikoa ezartzerako orduan azaltzen diren hain-bat oztupo. Ingurugiroa eta dirua elkarren kontra ari dira, eta gauzak dauden bezala egonik, dirua da momentuz garaile; eta K.O.z! Eusko Legebiltzar-rak 2.005. urtera begira plangintza bat prestatu du, non ideiarik inportanteena energia ahalik eta gehien EAEn bertan sortzea den.

Horrela, zenbait proiektu sartzen dira hemen, nahiz

eta zehazten ez diren. Eta horien artean Parke Eoliko-ak daude, energia lortzeko era ez kontaminante bezala, baina paradajikoki, inzine-radorak, zentral termikoak, gasaren tratamendurako Zentralak sortzea ere aurrei-kusten da. Guzti honetatik ondorio positibo bakar bat ateratzen da: egun produzi-tzen dugun energiaren %20tik, %80ra igaro gaitez-keela hurrengo 10 urteetan. Baliteke!

Kontsumoa handituz...

Baina beste ondorio ugari



X aier pz. de Karkamo

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



Ederki

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

somatzen dira beste aldetik: orain arte erosten dugun energia produzitzen duten Zentral kutsadura sortzaileak etxean egotera pasako dira, gure ingurugiro propioa are eta gehiago hondatuz. Honekin batera, energia garbiak izenekoak ezarri bai, baina energia zikinak ordezkatu gabe ezarriko dira, ino-lako Plangintzarik gabe gainera, hau da esperimantu gisa. Salvada, Elgea eta Arkamuko haize-errotak, plangintzarik gabe eraikitzen dira, eta horrek guztiak sortu ditu hainbeste galdera, hainbeste kezka, eta hainbeste "baliteke".

Aurrerantzean gauzak argituz joango direlakoan gaude, eta horren arabera eritziak aldatuz ere. Bitartean gauza bakarra dugu argi: energia eolikoa beharrezkoa da munduaren gaisotasun larria sendatzeko. baina energia eolikoa beharrezkoa da, ez edozein prezioan, eta beti ere baldin eta beste energia moetak (termikoa, nuklearra...), ordezkatzeko balio badu, eta ez besteei gehitzeko.

Asier
Pz. de Karkamo



Zenbat buru, hainbat aburu:

Helen, Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak
"Kostoez hitzegiten denean, beti hiriari kostatzen zaionaz mintzatzen gara, eta ez nekazariari suposatzen zaigunaz".

Alberto Luengas, Salvada mendilerroaren
aldeko Koordinakundeara

"Mendiak industrializatu nahi dira; inork ez du hemen mendien balio psikologikoez hitzegiten".

Joaquín García, Greenpeace

"Lehen helburuak energiaren kontsumoa murriztea beharko luke, eta Eusko Jaurlaritzak 2.005. urteari begira eginiko aurrerapenean kontrakoa somatzen da".

Jose Antonio Gil, Euskal Mendizaleen Federakundeara

"Arkamu Bizkaian balego, Parke Nazional izango litzateke, baina kasualitatez beste herrialde batean dago".

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

TXAPELARRI
TABERNA
KUTXI
kalean

bar • restaurante
albéniz

Portal
del
Rey 9

GASTEIZ



MIKEL
DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

interesa sor dakioken lagunari



gauzatu.

Zein da zuen abestietan osagairik inportanteena: estribiloak, hitzak...?

Hitzak. Zalan-tzarik gabe, testua da garrantzitsue-
na. Konposatzeko unean, ezer baino lehen, zerbait esaten duten hitzak bilatzen ditugu.

Gure mezua zabaltzeko musika sortzea, horixe da gure asmoa. Gero testuari erritmo on bat lotzen saiatzen gara, eta estribilo erakargarria ateratzen bazaigu, askoz hobeto. Hala ere, erne!, gu ez gara estribilo borobil baten bila ibiltzen, noizean behin agertzen da eta kitto.

Orduan, abestiak sortzerakoan abiapuntua hitza duzuela esan genezake.

Orain arte horrela gertatu da, baina ez da derrigorrezkoa beti horrela egitea. Musika tresnak jotzen ditugunok ondo baino hobeto

geu gasteiz

"Mezu bat zabaltzeko musika sortu nahi dugu"

geu gasteiz

ezagutzen dugu abeslaria-
ren estiloa, nolako melo-
diak erabiltzen dituen.
Honek baimena ematen
digu erritmoak aurreratzeko
edota egokitzeke ere.

Nonbait irakurri dugu musika apainketak egitea ez dela zuen estiloa

Bai; baina horrek ez du esan nahi musikari trake-
tsak garenik. Gure ustez,
kritikariek esan nahi dute
guk ez dugula ezer berririk
eskaintzen, eta egia da.
Hala eta guztiz ere, gure
musika ez da erraza, ez
pentsa!. Saiatu gure abesti-
ren baten bertsioa egiten
eta ohartuko zara horretaz.

Zenbat aldiz parekatu zaituztete La Polla-rekin?

djektibo baten
bidez definitu beharko
bagenu **SALVATE SI
PUEDES** taldea, eutsia
hitza erabiliko genuke.
Orain 5 urte sortu zen,
eta tarte horretan
ezezagunen erresuman bizi
izan badira ere, gaur
egun badirudi leku
ezkutatu horretatik
aldentzeko garaia heldu
zaiera.

Zorionak diskoaren aurkezpen ederrarengatik!

Eskerrik asko. Azala eta kontrazala Aita Mundinak prestatu ditu; baina ideia, kontzeptua eta barruko marrazkiak guk geuk sortu ditugu. Ikusten duzunez, abesti bakoitzari irudi bat dagokio. Informazio zabalagoa emateko asmoz jarri ditugu eta oso gogoko ditugulako ere bai. Marrazkiak zenbait fanzinetatik atera ditugu: Langabetuen Asanbladak eta IHESAren Aurkako Komisioak lagundu digute aukeraketan. Ahal bada, egiten dugun guztia kontrolatu nahi dugu, gure eskuetan dagoen guztia



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



Askotan. Baita Reincidentes-ekin, Parabellum-ekin eta Extremoduro-rekin ere. Nekatuta gaude gai horrekin. Talde horiek atsegin ditugu bai, baina gu Sálvate Si Puedes gara. Kritikariek zu beste talde batekin parekatzea errazena izaten dute, horrela ez dute luzaro pentsatu behar. Gainera gure helburua ez da La Polla bezalakoak bihurtzea.

Argi dago ez zatoztela bat modan dauden Estatu Batuetako punk taldeekin.

Ez, Offspring edo Green Day alternati-boak direla dioten arren, guk geure zalantzak ditugu. Gure iritziz alternati-boak ez du zertan komertziala izan. Bi hitz hauek ez dira bateragarriak. Etiketa horri esker batzuk negozio galanta egi-ten ari dira, multinazionalak ditugu, hain zuzen, zigilu alternati-boak sortzen ari direnak. Alternati-boa ote da disko bat hiru mila pezetatan saltzea edo kontzer-tuetako sarrerak beste hiru milatan jar-tea?

70eko punk taldeak nahiago dituzue, bada?

Bai, baita Euskal Herriko 80ko hamar-kadakoak ere, jakina! Hemengoak barruraino heltzen zaizkigu, ulertzen ditugu. Bai kanpokoak, bai hemengoak musika ezagupen sako-nik ez bazuten ere, gai izan ziren abesti bikai-nak egiteko, hunkiga-rriak benetan. Orain hogeitaz urteko punk mugimendua gaur egungoa baino jatorragoa zen. Gainera, soinu ezin hobeak entzun ahal izateko ez duzu hemendik alde egin beharrik. Hor duzu, adibidez, Cicatriz-en "Inadaptados" disko zoragarria.



Zuen abestietan ez dago lekurik baikortasunarentzat.

Gaur egun bizi dugun egoerarekin nola demontre izan zaitezke baikor. Ez, ez dago alaitasunik gure abestietan. Taldea kostata ateratzen ari gara aurrerantz eta, bestalde, taldekide guztiak langabezian gaituzu.

Nori sortu diezaioke interesa disko honek?

Entzun nahi duen edonori. Komunika-zioa bilatzen ari gara, hainbat gauzez gure eritziak azaldu eta zabaldu nahi ditugu. Gero, bakoitzak jakingo du zer egin beraiekin.

Eta non banatuko duzue diskoa?

Estatu osoan kaleratuko dugu. Hemen Elkarrek zabalduko du, kanpoan, aldiz, Surco-k. Euskal Herrian ezagunak gara Gipuzkoako eta Nafarroako gaztetxe gehienak bisitatu ditugulako. Baina hemendik kanpo gaitza izango dugu.

Eta hemendik aurrera zer?

Ekainaren 14an Gasteizko gaztetxean izango gara Madrilgo Orujo de Brujas taldearekin. Guretzat diskoa ez da kont-zertuei berriro ekiteko ait-zakia bat, izan ere ez diogu inoiz utzi zuzenean jotze-ari. Lehengo eta gaurko abestiak joko ditugu, denak.

Hemendik aurrera age-rraldi gehiago eskainiko dizkigutelakoan gaude. Ziur!.

Txabi
Arnal Gil

Ramones 'It's alive'



SEKURU ASKO nonbait irakurri duzu edo norbaitek esan dizu:

New York-eko laukotearen "It's Alive" izeneko lana, zuzenean grabaturiko rock diskorik onena da. Gu, ordea, ez gatoz bat iritzi honekin. Hala ere, uste dugu 1977ko Ramonesen disko hori bikaina dela ust dugu.. Eta arrazoai bat baino gehiago eman diezazukegu, aurrean duzun lana apartekoa dela ziurtatzeko.

Lehenengo entzunalditik egiaztatu ahal izango duzu, duela hogeitaz urteetako kontzertuek ez zietela Ramonesen jarraitzaileei atsedean hartzeko ezta minutu bat ere ematen. Bat, bi, hiru eta aurrera! Azkenengo abestiari hurrengoa lotu, eta tira!, hortxe duzu rock and rolla arina zer den azaltzeko adibiderik garbiena. Inork "Max-Mix" paíra ezinak zabaldu baino lehen, Ramones taldeak bazekiten nola eskaini abesti bat baino gehiagorik osatutako musika minutu asko.

Tamalez, azken urte hauetan Euskal Herrian ikusi eta entzun ahal izan ditugun Ramonesen agerraldiak ezin dira inolaz ere "It's Alive" honekin parekatu. Urteek ez dute barkatzen, ezta droga gogorrekin ere. Disko batetik bestera New Yorktarrek formula berdi-na errepikatu baino ez dute egin. Abesti bikainak sortu dituzte urteetan zehar, ez dugu inongo zalantzarik, baina jatorrizko indarra gutxika-gutxika erabat galdu dute.

"It's Alive" diskoa, laukotearen lehendabizikoa, bi lanez osaturik dago; hogeita zortzi abesti, denak ezagunak edo, behintzat, alde aurretik grabaturikoak. Gehienak klasiko bilakatu dira, zuzeneko klasiko ("Blitzkrieg Bop", "Sheena ia a Punk Rocker", "I wanna be well", besteak beste). Eta hauxe dugu galde-ra: zein kanta gogoratzen du entzulegoak, estudioan gauzatutakoa edo zuzenekoak?

DeeDee-k, Johnny-k, Joey-k eta Tommy-k zeuka-ten guztia eman ziguten 77garren urteko azken gauan, Londreseko Rainbow Theatre-n ospatutako kontzertu hartan, eta, zorionez, norbaiti bururatu zitzaion age-rraldia zertzea. Gaur, oraindik, Ed Stasium-i eskertu egin behar diegu kontzertu hura grabatu zutelako, bai eta Ramones taldeari ere, garai hartan rock and rolla gogaitasunetik ateratzearren. Mila esker!

ONGI
ETORI
RI
KUTXI 103
GASTEIZ

XurruT

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

ALISAS

TABERNA

KUTXI 591

gafelz

gaurkoak eta betikoak



aurrak

Lorea Zurimendi

jende horteroaren erresuma

Eguneroko bizitzan, jende hortero askorekin topo egiten dugu. Batzuentzat horteroak direnak, ordea, beste batzuentzat oso dotoreak dira. Edonola ere, guzti-guztiontzat horteroak diren pertsonaiak ere aurki ditzakegu, Rappel jaun miresgarria, kasu.

Baina, zein elementu dira garrantzitsusak pertsona bat horteroa dela pentsatzeko? Esate baterako kanpai itxurako frakak, galtzerdi zuria, ile apainketa sikodelikoa, laranja koloreko marratxoak dituen fraka horiak, oinetako larrosak borobiltxo gorriekin, loredun pamelak... Eta gasteiztarak nola janzten gara? Dotoreak gara ala horteroak? Galdera multzo handi honekin larrituta gaudenez gero, erantzunen bila Ganivet eskolako mostrongoengana jo dugu eta ondorengo hauek dira beren erantzunak.

TIPO hortero bat horrela jantzita ibiltzen da nire ustez: fraka zabalak eta gorriak, hockey-ko alkandora bat, ilea gomina askorekin eta kapela buruan. Horteroa, normalean, diskoteketara joaten da. Gaiarekin jarraituz, ni txandalarekin janzten naiz. Horrela dotore nago, baina ez ezkontza batera joateko adina.

Ekaitz, 11 urte

PERTSONA bat horteroa dela kontsideratzeko ezaugarri guzti hauek izan behar ditu: kanpanolo erako frakak, top-ak eta antzeko arropak jantzi behar ditu. Nire irakasle bat oso horteroa da, beti setazko jantziekin ibiltzen da, beno ia beti, eta bere oinetakoak txarolezkoak eta kordoidunak izaten dira.

Alba, 11 urte

KALERA oso dotore ateratzea gustatzen zait. Sarritan txandala janzten dut. Gainera, nire iritzian Ana Obregon oso neska dotorea da.

Ruben, 11 urte

NIK gizon dotore bat ezagutzen dut: bakeroak, oinetakoak, alkandora eta jertsea janzten ditu. Baita panazko frakak ere. Ile motza du, marroia. Metro



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA

Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ



eta erdiko altuera du eta nahiko argala da.

Daniel, 10 urte

TIPO hortero batek ile motza eta "perilla" daramatza. Top-ak eta kolore fosforitoak gustokoak ditu. Marrazki zatarrak dituzten galtzerdiak erabiltzen ditu. Horregatik, nik uste dut ni ez naizela horteroa. Normalean txandala jantzen dut, baina baita bakeroak ere. Nik neska hortero bat ezagutzen dut. Hala ere, ez dut izenik emango, bestela haserretuko da eta.

Leire Du., 11 urte

EGUZKITAKO

betaurrekoak, Elvis Presley-ren moduko orrazkera, kanpanolo frakak eta top-ak erabiltzea dira kaskarreraren edo horteroaren ezaugarriak. Nire lagun bat oso horteroa da, beti bakeroekin eta top-ekin jantzen baita.

Leire Du., 11 urte

ARRUNTKEARIAREN ezaugarriak hondoko hauek dira: pamela bat kanpai frakekin, top-ak, ilea bi txirikordetan eta plataformako oinetakoak. Ezaugarri hauek kontutan hartuz, nire lagunak eleganteak direla esan dezaket lasaitasun osoz. Era berean, nik neure burua dotore bezala konsideratzen

dut. Hala ere, nire ikasgelan oso neska horteroa dago, fraka motzak eta horiak jantzen ditu, oinetako beltzak, alkandora txikiak, eta ilean diadema bat eramaten du.

Elena, 10 urte

ARROPA horteroak, esate baterako, honako hauek dira: bota altuak eta bainujantzi bat, galtzerdi batzuk buruan eta eguzkitako betaurrekoak. Bestalde, ni batzuetan horteroa naiz. Beno ez, egia esateko ni dotorea naiz.

Izaskun, 10 urte

PERTSONA hortero batek fraka zaharrak eta

alkandora zikin bat erabiliko lituzke. Ilea orraztu gabe. Hau gutxi balitz, oinetakoak zikinak eta lotu gabe eramango lituzke.

Alvaro, 11 urte

HORTEROAREN

ezaugarriak hauek dira: larruzko frakak, laranja koloreko arropa, galtzerdi gorriak... Nire klaseko neska batek zapata orlegiak, galtzerdi gorriak eta larruzko fraka motzak jantzen ditu. Beste batzuetan, fraka laranja eta kolore ezberdinetako galtzerdiekin etortzen da ikasgelara. Ni ere batzuetan horteroa naiz eta beste batzuetan, berriz, dotore-dotore jantzen naiz.

Maitane, 10 urte

PERTSONA batek horteroa izateko horrela jantzi behar du: marka asko eta ezberdinak, arropa zaharrak, bisera atzerantz jarrita, begien kolorea lentillen bidez aldatuta eta bainujantzi zaharkituak erabiliko ditu. Era berean, mutil kaskar batek belarritakoa erabiliko du.

Urko, 10 urte

EZ EROSI ZURE PROGRESIBOAK ITSU ITSUAN

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Urrutira eta hurbilera betaurreko berekin bikain ikusteko ez dira aski kristal progresibo onak. Hoberenak behar dira: VARILUX, oso ongi graduatuak eta aditu batek egokituak: MENDIA OPTIKA.

Horregatik, VARILUX MENDIA OPTIKAZ fidatzen da eta MULTIOPTICASek VARILUX gomendatzen du.

Ez erosi itsu itsuan.



MULTIOPTICAS kreditu txartelarekin ordain ezazu nahi duzun moduan eta unean.



Larunbat arratsalde zabalik: 5.00-8.30

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

VARILUX BEZALA, FIDA ZAITEZ MULTIOPTICASekin

OHITURA ZAHARRAREN ZAINDARIA



Arabako Foru Aldundiak INFOPOINT *instalatu du*

EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO GUNEA

Hemendik aurrera, **Infopointen** bitartez, arabar guztiek Europako Batasunaren inguruko edozein informazioa eskuratu ahal izango dugu.

Infopointen, langile adituek Europaren errealitateari buruzko informazioa, datu baseak, bideoak, liburuskak eta beste hainbat eta hainbat agiri mota eskainiko dituzte: hezkuntza, ekonomia, kultura, politika, gizartea eta abar.

- Europari buruzko eztabaidarako leiho irekia.
- Europako Batasunaren inguruko informaziorik interesgarrienerako sarbidea.
- Enplegurako heziketa eta prestakuntza aregotzen lagunduko duen bidea.
- Kulturen elkartruckerako topagunea.

Hau guztia eta askoz gehiago da **Infopoint**.

Infopoint EUROPE

Probintzia plaza, 5

Tfnoa.: 18 19 00

Faxa: 18 17 54

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

9:00etatik 14:00etara

Larunbatetan:

9:00etatik 13:00etara

Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia



INFOPOINT EUROPE

PUNTO DE INFORMACION EUROPEA
EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO GUNEA

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LAÑDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



ZERBITZU
ELEBIDUNAK